

Zuhaitz baten azpian meditatzeke eserita,  
geldirik ikusten nuen neure burua denborarekin dantzan  
maiatzeko brisara edo haren aire zabalera  
makurtzen den belar-izpi baten modura.

Udazkena iragartzen denean  
loreen gainean pausatzen den ihintzaren  
antza dut  
nik, aienatu egin behar dudan honek  
eta nahi nuke  
dilindan egon ezerezean  
txikiagotu  
eta ezer ez bihurtu.

Ilunpetako Itsasoan  
eguzkia desagertzen denean  
bidaiaren eta denboraren amaieran  
argi zoragarri batek nondik-nahi beteko ditu begirada eta zerumugak  
eta isiltasunean  
distira egingo du Lorategietako Uharteak.